



JUSTO MARI MOKOROA
(1901-1990)

Egilea:

XABIER KINTANA

SENIDEAK ETA ETXEKO GIROA

Justo Mari Mokoroa Muxika Tolosan jaio zen 1901.eko maiatzaren 28an. Familiaran kristau giro sakonean hazi eta hezia izan zen. Etxeko ingurumen berezi horretatik, haren aita Valerianok eta bere ama Josefak izandako bederatzi seme-alabetatik Justo Mari, Atanasio eta Juan Jose eskolapio izan ziren, Eustakio Irungo koadjutore, Agustin jesuita eta kimikan doktorea, eta Maritxu moja, gainerako alaba biak, Lourdes eta Isidora, maistrak izanez. Bazen, gainera, beste seme bat ere, apaiz ordenatu baino egun batzuk lehenago hila, Gregorio alegia.

Aita, Valeriano Mokoroa (1871-1941), pertsonaia oso ezaguna zen Tolosan. Bizimodua herrian zeukan liburudenda eta moldiztegitik ateratzen zuen. Baina horrez gainera, Valeriano idazlea ere bazen. 1897an, Oiartzungo Euskal Jaietara bi ekitaldiko komedia bat aurkeztu zuen *Damuba garaiz*, saritua izana. Azkuek Bilbon fundaturiko *Euskalzale* astekarrian hasiera-
-hasieratik parte hartu zuen Valerianok. *Euskal-Erria* aldizkarian poema batzuk

eman zituen argitara, eta *Aitortu egin bear! edo Guraso baten estuasunak!* (1902/3) komedia ere bai. Eduardo Mokoroa musikagileari, hots, bere lehengusu txikiari, eliz kantuen letrak ere egiten omen zizkion Valerianok.



Justo Mari Mokoroa (1901-1990).

2



Bizpahiru urterekin egindako argazki bukolikoa.



Justo Mari Mokoroa, goian, ezkerrean, txapelaz jantzita, bere aitona-amona, ama eta anaia-arrebekin.



Tolosa, Justo Mari Mokoroaren sorterrria. XX. mende hasieran.

Aurretiko hauekin, bistan da Justo Marik erlijio-giroarekin batera, euskaltzaletasuna ere etxeoengandik jaso zuela txikitandik. Kaletarra izan arren, berak kontatzen zuenez, haren gurasoen dendara eta etxera merkatu-egunetan inguruko baserrietako andre asko etortzen zen, ostatu bila, eta haiekin bazkaltzen zuen artean, beren ezpainetatik ere herri-euskara jatorra dastatzeko aukera paregabea izaten zuen.

Lehen ikasketak bere jaioterriko aita eskolapioen ikastetxean egin zituen 1906.etik 1913ra bitartean eta, horrek gidatuko zuen, seguraski, bere bokaziozko aukera egitera.

MOKOROA, APAIZ ETA ESKOLAPIO

Tafallako Postulantetza inauguratu zen egun berean sartu zen eskolapio-ikasketak egitera, 1913ko urtarrilaren 8an. Hurrengo urtean Peralta de la Sal-era pasatu zen. 1915.eko ekainaren 20an nobizio-aldia hasi zuen, handik bi urtera, 1917.eko abuztuaren 15ean profesio sinplearekin amaitzeko.

Apaiz ikasketak Iratxen (1917-1920) eta Cascajo-n Zaragozan (1920-1922) burutu zituen.

Profesio handitsua Zaragozan egin zuen 1922ko uztailaren 15ean. Bi urte geroago, Iruñean apaizgoa jaso zuen Mateo Mugica Urreztarazu diozesi apezpikuaren eskutik.



Iruñean, 1924.eko ekainaren 15ean, lehen meza eman zueneko argazkia, guraso eta anaia-arreba guztiekin.

4

Lehenbiziko lana Zaragozako San Tomas ikastetxean bete behar izan zuen, bigarren mailako haurren irakasle, 1922-1923 ikasturtean. Hurrengo urtea ere bertan hasi zuen, baina handik laster Iruñera itzuli behar izan zuen. Azaroan Benlloch kardinalak Latinamerikatik ostera luzea egin behar zuela eta, aldean aita Adolfo Villanueva eraman zuen, idazkari. Hortaz, aita Justok horren lekua bete behar izan zuen Iruñeko Merkataritza Akademia ospetsuan, eta 1923ko azarotik 1926ko otsailera arte Sarasate pasealekuko etxe zaharreko komunitatean bizi izan zen.

1926ko martxoaren 7an Txileko Santiagora joan eta bertan zazpi urte eman zituen hiriburu horretako Hispano-Amerikar ikastetxean, frantsesa irakasten.

1933. urtean aita eskolapioen probintzialak, Pantaleon Galdeanok, Vasconia-Euskal Herriko Probintzia eskolapioa eratzea erabaki zuen. Hori dela eta, nagusiak deituta, Txile utzi eta Aita Mokoroak 1934.eko urtarrilaren 14an Iruñera itzuli behar izan zuen. Lehen unetik Probintzialaren laguntzaile eta idazkaria izan zen, eta lan handia egin zuen Euskal Herriaren kultur eta hizkuntz eremuari egokituriko probintzia berria antolatzen. Bide batez, klaseak ematen segitu zuen, frantses irakasle gisa.



Iruñean, 1926. urtean.

Hogeita sei urterekin
Txilera eginiko
lehenbiziko bidaian.



GERRA ZIBILAREN ONDORIOAK

Baina 1936ko udaldean gauzak errotik aldatuko ziren. Orduko altxamendu militarrek eta beroni jarraiki zitzaion gerra zibilak era guztietako grinak eta erokeriak piztuko zituzten. Gorroto-egunak izan ziren haiek, etsaiak eta izterbegiak, egiazkoak zein ustezkoak, errukirik gabe jazartzekoak. Iruñeko giroa ez zen inola ere elkarrizketa ez bakerako egokiena.

Santu Orogen egunaren bezperan, aita Tomas Garrido, laguntzaile nagusiaren bermetasunari esker, Ipar

Euskal Herriko Beloc-eko Abadiara alde egiteko aukera izan zuen. Han aita beneditarrek abegi ona egin zioten, hegoaldeetik ihes egindako eta antzeko egoeran zeuden beste apaiz askori bezalaxe. Horien artean Jose Migel Barandiaran jauna aurkitzen zen.

Beloc-en zenbait hilabete eman zituen, beneditar gazteei eskolak ematen, baina handik laster, frantsesez oso ongi mintzatzen zela eta, Mathieu-k, Akizeko apezpikuak, Diozesiko Apaizgaitegira eraman zuen. Hor lau urtez jardun zuen irakasle.



J. M. Mokoroa Bordelen, 1937an gerra zibeletik iheska.

6

BERRIZ ERE AMERIKARA

1941eko apirilean Tolosara itzultzeko aukera izan zuen, baina egoera ezin tristeagoan: aita hila zuen. Eskolapioen Orendaingo komunitatean sartu zen, baina ez zuen han luzaro iraun. Gogoan izan behar da gerra bi urte lehenago bukatua zela eta errepresaliak ez zirela oraindik atertu. Hortaz, urte bereko urrian berriz ere Amerikara ontziratu zen, Txilera bihurtzeko.

Bederatzi urte eman zituen han, lehen ere egona zen Santiagoko ikastetxean. Ospe handia eman zioten lekuari aita Justoren frantses- eta erlijio-klaseek. 1946an Katekesi Batzorde Nazionalaren kide hautatu zuten eta 1948-1949 artean bertako idazkari izan zen. Han izan zen bitartean bertako euskaldun emigrante eta erbesteratuekin harremanak izan zituen, Estornes-Lasatarrekin batez ere.



Txilen, 1948an, Santiagoko Eskolapioen ikastetxean.



Txilen, bigarren egotaldian.

ITZULERA

Azkenean, 1950ean Europara itzuli zen. Urte santua zen hura eta Erromatik pasatu zen. Atzerrian hainbeste urte iragan ondoren, bere herrira zetorren. Irailean Tafallako komunitatean sartu zen, baina, aurrekoetan bezala, denbora gutxi eman zuen han. Gabonetan Madrilera joateko obedientzi agindua jaso eta, *casa Pompiliana* deritzon idazleen etxera alde egin behar izan zuen. Madrileko urte haiez oroitzean, buruari

eraginez, hauxe esan ohi zuen aita Justok: «ezer ez egitera eraman ninduten».

Euskal Herriratu 1953an egin zen, eta oraingoan betiko. Tolosako ikastetxean bi urte eman ondoren (1953-1955), Bilboko Calasanz Ikastetxeko komunitatean sartu eta bertan hil arte iraun zuen, urte batzuetan, ikastetxeko konponketa-lanak zirela eta, 1971ko ekain-irail artean Iratxen eta 1985eko maiatzetik 1987ko urtarrilera arte, Tolosan bizi izan arren.

7



Tolosako ikastetxeko eskolapioekin Lourdesera 1954.ean eginiko bidalia.

AITA MOKOROA BILBON

Jadanik Bilbora etorria zenean ezagutu nuen nik aita Justo, 1957ko apirilaren bukaeran, 10 urte nituela, neure gurasoek eskolapioen ikastetxera eraman nindutenean. Ordura arte Epalza alargunaren Tivoli kaleko eskola publikoetan ibilia nintzen eta ikastetxera desorduz nentorren, bertako ikasleekin batera batxilergorako sarrera egiteko asmoz. Garai hartan (1955-1958) aita Justo Mari Mokoroa ikastetxeko errektorea zen eta berak errezibitu gintuen. Ene gurasoei argi esan zien, ikastetxean onartzen baninduten ere, hain denbora laburrean –sarrera-azterketa hilabete eta erdi geroago izateko baitzen– eskolapioek ezin har zezaketela beren gain ene

prestakuntzaren erantzukizunik. Aitak erantzun zion hori ongi konprenitzen zuela, baina eskolatik ongi horniturik nentorrela. Hori egiaztatzeko, aita Justok ortografiari buruzko galdera batzuk egin zizkidan. Guztiei erantzun nien baina batean, «nola idazten da *víbora* hitza?» galdetu eta nik biak b-rekin erantzutean, berak ea seguru nengoen itaundu zidan, eta nik baietz. Orduan, ene gurasoen lasaitasun-aurpegiagatik ortografia haien arlorik landuena ez zela konturatzean, honela erantzun zidan: «Tira ba! Horrelako gauzetan seguru egon beharra dago».

Gogoan dut oraino etxera heldu bezain laster hiztegia hartu eta *víbora*-ren egiazko idazkera zein zen egiaztatu nuela, harrezkero sekula ahantzi ez dudana. Aldi berean, ederki konturatu nintzen nolako zuhurtziaz erantzun zidan aita Justok ere, ene gurasoak ez lotsarazteagatik.



Eskolapioen Bilboko ikastetxea, Mokoroaren urte askotako bizilekua.

AITA JUSTO IRAKASLE

Gizon argala zen, altuera ertainekoa, begi zorrotz barrendariek. Begiratzeko moduan aski nabarmen erakusten zuen bere adimen zolia. Urte batez frantses irakasle izan nuen, hamabost urte nituenean. Eskola eta pedagogia zaharreko maisua zen, baina erabat efikaza eta beti ere ikasleok errespetatzen zekiena. Oso barruan zeraman Frantziako *Langue et civilisation* bikotearen ezin hautsizko elkartasuna, hots, ez zegoela hizkuntza bat ikasterik hura zerabilen herriaren kultura, literatura, historia, tradizioak eta ohiturak ere ongi ikasi gabe, eta horien berri ere sarritan ematen zigun.

Bere eskolak arreta handiz prestatzen zituen eta testu-liburuez gainera, bere apunte, ohar eta fraseologi zerrenda mekanografiatuak ekarri ohi zizkigun. Metodikoa zen eta



Adimen zolia salatzen zuen haren aurpegiak.

bazekien klaseak argi azaltzen, horretarako hitz egoki eta zehatzak bilatzen saiatuz. Baina ikasleongandik ere arreta eta ardua berbera eskatzen zuen, zorroztasunez. Azterketak zuzentzeko orduan ere ohi ez bezalako eskrupulua izaten zuen, gauza guztien gainetik justizia gorde guran, justutasuna, alegia.

Ez zen, egia esan, maisu maitagarri horietakoa, eta beraren eta ikasleen arteko urruntasuna mantentzen zuen, konfiantza handiegirik eman gabe. Horregatik, behin ikasketak amaitu ondoren, ikasle ohi gisa berarekin harremanak izaten segitu genuenok, ezusteko ez txikia izaten genuen, klaseetakoa ez bezalako aita Justo hura ezagutzean, gizatiarra, begikoa, gure eskari edo laguntza-eskeei erantzuteko prest beti.

Harrigarria bada ere, oso gutxitan aipatzen zigun klasean ezer euskarari buruz, haren irakasgaia frantses hizkuntza izanik. Baina frantsesaren egiturek horretarako aukera ematen zutenean, euskararekin konparaketa laburrak egin ohi zituen, zenbatzeko sistema hogeitarrean (laurogei = *quatre-vingts*) edo gramatikazko beste xehetasunen batean, adibidez, baina besterik ez. Gogoan izan behar da Francoren garaia zela hura, eta klandestinitate-giroaz gainera, bazuela

10

gerra-denboran berak pasaturiko esperientzia latzen oroitzapena ere. Halere, beste irakasle batzuek esanda, bagenekien euskaltzalea zela. Guztiek esaten ziguten hizkuntzak ikasteko zaletasun eta erraztasun handia zuela, latin, greko eta frantsesez gainera, ingelesez eta alemanez mintzatzen ere bazekiela eta «seguraski, munduan euskara gehien zekiena, bera zela».

Javier Eizagirre jaunak, Franco hil ondoren Bizkaiko lehen Diputazio demokratikoan Kultura diputatua izango zenak, orduan literatura eta filosofia irakasgaiak ematen zituen eskolapioen ikastetxean, eta, noizean behin, gaia kontura zetorrenean –eta inoiz ez zetorrenean ere bai!–, euskara zer zen eta horren alde aita Justok zer-nolako ahalegin handia egiten ziharduen azaltzen zigun. Horri esker izaten genuen ikasleok aita Justok eskuartean zerabilen bestelako lan harrigarriaren berri.

Egun batean, beste irakasle batek, matematika ematen zigun Jesus Etxabe zarauztarrak esanda, aita Justoren urtebetetzea zela jakin genuen eta bera klasera heldu baino lehenago, arbelean «Zorionak eta urte askotan» esaldia idatzi genion, hitz horiek euskaraz zekien fraideren bati galdetuz.

Hori ikustean, Mokoroak izugarrizko poza hartu zuen, bere gelara joan eta

Labeguerie-ren disko bat ekarri zigun, jai txiki bat antolatzeko. Gogoan dut, gainera, *zorionak* hitzaren jatorri zaharra azaldu zigula, hots, hura euskara zaharrean, «txori onak» esan nahi zuela, grekoek, erromatarrek eta antzinako beste herri batzuek egiten zuten bezala, behialako euskaldunak ere hegaztien kantu, hegaldi edo bestelako seinaleengatik etorkizuna asmatzen ahalegintzen omen zirelako. Eta ezer falta ez zedin, erdarazko *pajaros* edo *aves de mal agüero* esaerak, *de mal augurio* esan nahi zuela argitu zigun, uste zahar berean oinarriturik, eta, etorki berekoa zela, halaber, euskarazko agur hitza ere, latinezko *augurium*-etik heldua.

Horra hor, hitz bakar batetik abiaturik zer-nolako ondorio luzeak atera ohi zituen Mokoroak, saskitik gerezi bat hartzean, txortenekin beste askorekin korapilatu eta azkenean kate luzea kanporatuz. Ikasleok, zer esanik ez, horiek guztiak entzutean are gehiago miresten genuen, aho zabalik, haren jakituria itxuraz agortezina.

Izaeraz gizon «konpasa», ordenatua, perfekzionista eta urduria zela esan genezake. Arratsaldero ikastetxetik irten eta ibilalditxo bat egiten zuen hiriko kaleetatik, «egurasteko», berak esaten zuenez. Ohitura hori ez zuen inoiz galdu.

Behin, Bilboko kale batean aurkitu eta hain presaka nora zihoan galdetu nionean, honela erantzun zidan: «Medikuarengana noa, aspaldian ez bainaiz ongi sentitzen». Zer zeukan itaunduta, hauxe ihardetsi zidan: «Hara, lasterka ibiltzen naizenean, lehen ez bezala, nekatu eta arnasestuka egoten naiz». Nik, zuen adina ikusita, esan zidanagatik harriturik, honela esan nion: «Baina, aita Justo, zenbat urte dituzu honezkero?», eta berak «Laurogei». Gogoan dut oraino honetara erantzun niola: «Hogeita hamabost besterik ez dut nik eta korrika nabilenean ere maiz arnasa hartu ezinik egoten naiz. Zer ba, zure adinarekin ez nekatzea espero zenuen ala?». Eta, barrezka, agur esan genion elkarri.



Valeriano Mokoroa, aita Justoren aita.

MOKOROA EUSKALTZALE ETA IDAZLE

Gorago aipatua dugu haren aitaren euskaltzaletasuna. Hizkuntzaganako maitasuna, beraz, txikitandik zetorkion. Baina Mokoroaren aitak bazuen besterik ere: hizlari eta solaskide bikaina omen zen, bera ezagutu eta tratatu zutenen aburuz. Mintzatzeko erraztasun horrek inoiz teatro-jokalari izatera ere bultzatu zuen (R. Azkarateren *Ijituen kontratuba eta ezkontza*-n, 1895ean). Eta Justo Mari gaztea hizkuntzaren adierazkortasun horren miresle porrokatua izan zen txikitandik eta halaxe nabari zuen mintzo zenean ere.

11



Josefa Muxika, bi alabaren artean.

12

1920ko udan Eusko Ikaskuntzak bere II. Batzarra Iruñean egin zuen. Egun haietako batean biltzarkideak Iratxera joan ziren. Bertako monasteriora heltzean Mokoroa gaztea hautatu zuten haiei ongi etorria emateko. Guztiek aho batez goraiatu zuten 19 urteko mutil hark zerabilen euskara dotorea.

Etorri handiz hitz egin ez eze, idatzi ere, halakoxe trebetasunaz egiten zuen. Bere lehen lanak Donostiako *Argian* publikatu zituen. Geroago *La Voz de Navarra*, *Zeruko Argia* eta *Euskal Eснаlea* aldizkarietan ere idatzi zuen. Apaltasunez *Ibar*, *Iparralde* eta *Argizale* ezizenak erabili zituen. Txilen zegoela *Gure baratzeko loreak* bilduma eman zuen argitara.

Bere lan originalaz gainera, aparteko maila lortu zuen Mokoroak itzulpengintzan. Ez dira asko, egia esan, utzi dizkigunak, baina haietako bakoitzak harribitxia dirudi, bere hobeintasunean. Bi aipatzeko, hor dira Iturralde y Suit-en *Errotazuriko Urretxindorra* (1924) eta Campionen *Erraondoko azken danbolinteroa* (1925) lanen euskal itzulpen bikainak.

Bere merezimendu nabariengatik 1957ko irailaren 26an euskaltzain urgazle izendatu zuten. Urtebete lehenago *De vida o muerte. Operación salvamento* lantxo argitaratu zuen,

orduan hilzorian aurkitzen zen euskara salbatzeko proposamen zehatz batzuekin, herri-euskararen aldeko apustua eginez. Antzeko jarrera aurkeztu zuen 1968an ere, bere *Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka* txostenean ere, Euskaltzaindiak, hizkuntzaren batasuna eztabaidatzeko antolatu zuen Arantzazuko batzarrean aurkeztua. Ideia hauek guztiok *Lengua vasca de hoy y de mañana* liburuan argitaratu zituen 1971. urtean, Deustuko Unibertsitatean euskara batuaren inguruan egin ziren hitzaldien ondorioz, bera ere hor partaidea izanik.

1979. urtetik aurrera ohorezko euskaltzaina izan zen.

J. M. Mokoroa 1973. urtean.



HIZKUNTZAREN BARNE-JEINUAREN ALDE

Baina, zalantzarik gabe, Justo Mari Mokoroaren obra erabakigarriena *Genio y lengua* izan zen, gerra zibilaren bezperan argitaratua. Liburu gutxi izan dute Euskal Herriaren historian honek bezalako eragina. Eta egia esan, plazaratu zen uneko giro politikoagatik, liburuak ez zuen zabaltzeko bat ere aukerarik izan. Halere, ia-ia klandestinoki, eskuz esku eta ixilka-mixilka hedatuz joan zen, gerraondoko belaunaldi gaztearen ezin utzizko gida eta orientabide bilakatu arte.



Genio y Lengua-k gerra ondoko belaunaldien euskaltzaletasuna piztu zuen.

Obra horretan Justo Mari Mokoroak euskal nazioaren bi zutabe nagusiak seinlatu zituen: hizkuntza eta erlijioa. Berak zioenez, euskarak egiten gaitu euskaldun, beraren bidez eskuratzen du gure jendeak bere pentsabide bereziaren mamia. Haren ustez, edozein herriren izpiritua hizkuntzan datza, eta bere mintzaira galtzen duen jendeak, harekin batera bere izaera eta naziotasun propioa ere galtzen du erremediorik gabe. Horixe zen, hain zuzen, Campionen *Erraondoko azken danbolintero*a ipuinak, berak euskarara itzuliak, argi erakutsi nahi duen azken ondorioa. Alde horretatik, eta zalantzarik gabe, Mokoroa, aleman pentsalarien *Volksgeist* edo Herri-arimaren teoriarari nagusia izan genuen, eta euskal nazioak bere oinarri funtsezkoena euskaran zeukala aldarrikatu zuen.

Kampion-en *Erraondoko azken danbolintero*a, Mokoroak euskaratua.



Arraza, odola, euskarazko deiturak eta berton jaio izatea nazioaren zutabe nagusitzat jotzen ziren garaian, berak, euskalduntasunaren oinarria hizkuntzan zetzala azpimarratu zuen ausarki, eta, beste kontsiderazio ororen gainerik, euskaldunon helbururik behinenak geure hizkuntza salbatzea izan behar zuela, gure naziotasunak irauteko bide bakarra horixe zelakoan. Horrek guztiorrek, noski, eragin zuzena izango zuen ondoko belaunaldien ideologia euskaltzaleagoan.

Ordurarteko abertzaleek hizkuntzari eskainiriko leku eta garrantziari dagokionez, gogoeta sakon eta kritikoak egin zituen, eta Sabino Aranaren jarraitzaileei esker hizkuntzak izandako ustezko bultzada zalantzan jarri ere bai. Berak salatzen zuenez, egiazko herri-hizkuntza bizia hauspotu eta landu beharrean, abertzale askok euskara sinbolikoki besterik ez zerabilten, erdaldunen aurkako armatzat, garbizalekerian oinarrituriko emaitza artifiziuala, asmakeriaz ase eta ulertezina barreiatuz, eta, ondorioz, jendea, nazkaturik, hartatik urruntzen zuten. Bere ikuspuntutik, kontua ez zen euskaraz liburu asko argitaratzea eta saltzea, jende euskaldunak, beren mamia eta idazkera atseginagatik interesaturik, liburu horiek egiazki irakurtzea baizik.

Bere liburuan aita Justok, Hegoaldeko Larramendi eta Aranaren garbizalekeriaren bide okerrak barik, Iparraldeko euskaldunen pragmatismoa eta zentzu ona goren zituen, Axular eredu, eta herri-mintzairarekiko errespetua predikatzen. Etorkizunerako bide berriaren hasiera itxaropentsua, bestetik, Orixek kaleratu berria zuen *Euskaldunak* poeman zekusan, ilusioz beterik.

Genio y lengua bere garaiko produktua zen, eta, beraz, ez gaitu harritu behar, gaurko begiekin ikusita, anitz pasartetan, ohitura eta moralari dagokionez batik bat, integrista samar agertzeak. Egilea bera horretaz konturatua zen eta halaxe aitortzen zidan berak bere liburua irakurtzeko utzi zidanean. Elizgizona zen aldetik, eta gerra aurreko giro hertsia hartan, nazioaren izaeran erlijioaren garrantzia azpimarratuegi zuela onartzen zuen. Halere, gainerako atal gehienek ez dute gaurkotasunik bat ere galdu. Mitxelenak honela zioen Mokoroaren lanaz: «Hizkuntz eredu bikaina darabil. Bera irakurri ondoren, ezer ez dakidala uste dut. Ikasle izateko jaio ginenok doktrina geure eskuko dugu Mokoroaren obran, helburu hori erdiestea zaila izanik ere».

ETSIPEN-URTEAK

Bere gaztaroan Tolosan ezagutu eta bizi izandako euskal giro jori eta aberatsa gaztelaniaren eraginpean belaunaldiz belaunaldi ezereztuz zihola ikustean jadanik kezkatzen hasia bazen, geroago, gerrako eta gerra ondoko gertakariak sakonki hunkituko zuten aita Justo. Frankistek eginiko era guztietako gehiegikeriak eta euskararen aurkako errepresio latzak benetan ikaratu zuten eta gure hizkuntzaren heriotzako ordua hurbil zela pentsatzen zuen etsipenaz.

Bazen, ordea, esperantzarako zirrikitu bat: urte batzuk lehenago Finlandian suomierarekin gertatu zen bezalatsu, aspaldiko urteetan Israelen ere ari ziren juduak hebreera hila berpizten, eta horrek, berak aitorturik,

zer pentsa ematen zion. *Exodo* liburu famatua irakurria zuen eta judu-herriaren izaera setati eta ekintzailea biziki miresten eta goraipatzen zuen, eta ez, soilki, hizkuntz arloan.

Baina lagun baikorregi batzuek bestelako iritziak izan arren, Mokoroak, ordea, ez zuen uste, behin hizkuntza hilez gero, hiztegiak eta gramatikak hura berpizteko aski izango zirenik. Horiek hezurdura eta, agian, inguruko giharreria eman ziezaioketen, baina halere ezingo zioketen lehenagoko arima itzuli, barru-barruko jeinu eta izpiritu joana. Horretarako, zerbait gehiago beharko zuen: herri-nortasun bereziaren ispilu diren esapide, ateraldi jator eta idiotismoak. Eta, erabat galdu baino lehen, horiek guztiak jaso beharra zegoela konturaturik, lan horretan buru-belarri murgildu zen.

15

D. Klaudio Gallastegiri eginiko omenalditxoan, Balendin Enbeita bertsolariarekin eta Kontxa Azaola andrearekin, besteak beste.



MOKOROA ETA BESTE IDAZLE ERRALDOI BATZUK

Eskuarki bere bizitza gehiena eskolapioen ikastetxearen barruan eman arren, bazuen, halere, aita Justok harreman ez gutxi bere garaiko zenbait idazle eta ikertzaileekin.

Esaera zahar bila zebilela, aita Mokoroak inoiz hitz bitxiak ere aurkitzen zituen, maiz Azkuek bere hiztegian bildu gabeak. Behin holakoen zerrenda luzetxo bat prestatu eta Euskaltzaindira joan zen, berba haiek Azkueri eskaintzeko asmoz, beronek bere hiztegiaren hurrengo edizioan erants zituan. Dakigunez, handik egun batzuetara, Azkue bertan ez zen une batean, Akademiara itzuli eta bere zerrenda paperontzian aurkitu zuen Mokoroak. Hori ez zitzaion bat ere gustatu, Azkuek, harrokeriaz edo, bere eskaintza mespretxatu zuelakoan, nahiz eta, seguraski, papera bota aurretik lexikografi datuak bilduko zituen.

Lankidetzan desinteresatu honez gainera, ez dirudi euskalari erraldoi hauek elkarrekin harreman handia izan zutenik, lekeitiarrak Bilbon egon zen bitartean, Tolosakoak luzaro atzerrian bizi behar izan zuen eta. Lotura estuagoak izan zituen, ordea,

Lino Akesolo karmeldarrarekin eta aita Zavala jesuitarekin, honek bertsozaritza arloan egindako lanaren miresle handia zen eta.



Ortik eta emendik, eskolapioen erraldoi-lana.



ORTIK ETA EMENDIK

Izen honekin argitaratu zuen aita Justok, azkenean, 1990. urtean, bere esalditegi sonatua, haren bizitza osoaren emaitzarik landuen eta maiteena.

Gorago azaldu den kezka bultzaturik, denbora galdu gabe, euskal esaldien bilketa sistematikoari ekin zion gztetandik Justo Mari Mokoroak. Job sailduak berak inbidia liezaiokeen pazientzia handiaz, liburu-aldizkariak arakatu, entzundako elkarrizketa xelebreak, gogoan izandako esaldi bitxiak eta antzeko materialak biltzen hasi zen, horretan kontu ezineko orduak emanez.

Bere bizitzan Mokoroak bazuen euskal hiztegitxo bat argitaratua, apaltasunez anonimoa, eta badakigu *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera*-n ere esku hartu zuela baina hor izandako esperientziak ez zion askorik lagundu bestelako lan honetarako. Hiztegiek, alfabetoaren ordenari esker, badute hitzak sailkatzeko era jakina, baina esalditegiak ezin daitezke alfabetoaren arabera ordena. Hortaz, urteak eman behar izan zituen Mokoroak bere esaldi-hiztegirako antolaketa egoki eta praktikoa aurkitu arte. Azkenean, A. Pinloche eta Ferdinand Brunot-en koadro eta aurkibideei esker, kategoria

eta kontzeptuen arabera sailkatu ahal izan zituen bere obrako ia 100.000 esaerak, berrogeita hamar urte baino luzaroago hortik eta hemendik bilduak. Gogoan izan beharra dago, bestalde, zeregin hori informatikaren oraingo tresnak eta baliabideak merkatura heldu baino lehenago egin behar izan zuela, lan mekaniko izugarria izanez.

Zorionez, azken urteetan Labayru elkarteak eta Bizkaiko apezpikutegiak eskainiriko laguntzari esker, lehenagoko lana biziki erraztu zitzaion, mekanografiatzeko laguntzaileak, informatika-espezialistak etab. aldamenen izanik. Ordenatze- eta zuzentze-lana, ordea, ez zuen inoren eskuan utzi nahi izan eta den-dena berberak gainbegiratu zuen, azken xehetasuneraino, liburua argitaratu arte.

Obra hori Euskal Herrian inoiz agertu den liburu harrigarrietakoa da, euskalki, mende, lanbide, egoera sozial eta giza sentimendu ororen ispilu, gure jendearen arima sakona bere ateraldietan islatuz. Hortxe ageri zaizkigu geure aurreko eta oraingo herritar askoren poz, haserre, neke, ilusio, etsipen, malizia, damu, osasun, aldarte, ironia, gose, egarri, nahi, eta eguneroko gorabehera asko adierazteko esaldi eder bezain baliotsuak, eta horiek, gaurko erdal

giro maiz itogarritik urrunduta aire freskoa biriketartzeko aukera ona eskaintzen digute. Zinez egiazko urregorria darion iturria dugu obra hori, idazle, irakasle, ikasle eta euskal kulturaren sakondu nahi duen edozeini gomendatzekoa. Esaera horietako asko eta asko, Mokoroaren pazientzia eta aurreikuspenagatik izan ez balitz, honezkero betiko galdurik leudeke, berreskura ezineko espezie linguistikoa gisa. Gure harekiko zorra, beraz, betikoa izango da, ez baita erraldolan hori behin ere ahantziko euskaldunok diraugin artean.



Aita Justoren sinadura.


GABRIEL ARESTIREKIKO TRATUA

Gabriel Arestik ere harremanak izan zituen J. M. Mokoroarekin. Izan ere, biak euskaltzaleak ziren, hizkuntzaren biziaz eta etorkizunaz kezkatuak, eta hiri berean bizi izan ziren luzaro. Beraz, logikoa zen elkarren artean traturik izatea. Harreman hori, ordea, ez zen oso beroa. Gogoan izan behar dugu bien artean ideologi amildegi sakona zegoela: bata erlijioso eta kontserbadorea zen artean, bestea, aldiz, agnostiko eta ezkertiarra genuen. Euskararen etorkizunaz ere apustu bana egina zuten gainera: tolosarra betiko herri-euskararen aldekoa; literatur euskara batuaren bultzatzailea genuen, aldiz, bilbotarra. Biak idazleak ziren, egia, baina bide erabat saihestuetatik abiatuak.

Halere, euskaraganako maitasunak biak elkartzen zituen. Arestik Mokoroaren lan ixila, hor-han-hemendik bilduriko esaldi bitxien bilduma aspergaitza miresten eta biziki estimatzen zuen. Euskararen osasunerako eta gure hizkuntza aberasteko, funtsezkoa zeritzon. Gabriel, euskaldun berria izanik, hutsuneok bere baitan nabarmen sentitzen zituelako, ezin hobeki konturatzen zen Mokoroak aldarrikatzen zuen herri-euskara

jatorraren premiaz. Eta lan hartan laguntzeko prest egon zen. Bera izan zen, hain zuzen ere, Justo Mari Mokoroaren lanaren garrantzia bere adiskide Borja Escauriaza-ri ezagutarazi eta horretarako diru-laguntza emateko komentzitu zuena. Jaun horrengandik Mokoroaren obrak bere lehenbiziko ehun mila pezetak jaso zituen, 70eko hamarkadan oraingo milioi bat pezetak baino gehiago balio zutenak. Mezenas eskuzabal horren emaitza, beraz, Gabriel Arestiren gestioen bidez lortu zen, eta aita Justok bere obraren hasieran Bilboko poetari espreski eskertu zion bere liburuaz izandako interesa, beste ongileari bezala.

Ongi azpimarratzekoa da, benetan, hizkuntzaren alde, biek elkaturik jokatu nahi hori, hain ideologia urrunduak ukan arren.



MOKOROAREN IDEOLOGIA

R. M. Azkue eta Julio Urkixo euskaltzaleak bezala, aita Justo Mokoroa ez zen inoiz politikazaleegia izan. Begi onez zekusan, hori bai, abertzaletasuna, baina berotasun handirik gabe. Gaztetandik, bere *Genio y Lengua*-n gogor kritikatu zuen hizkuntzari behar adinako garrantzirik ematen ez zion ideologia hori, eta, zoritxarrez, Bizkaiko, eta batez ere, Bilboko abertzale tradizionalen kezken artean euskara ez zen, begien bistan zegoenez, ageriena. Txistua, dantza folklorikoak, txapela, abarkak, ikurrina eta azaleko ezaugarriei kasu handiagoa egiten zitzaien orduan mintzaira nazionalari baino. Seguraski horregatik Mokoroak ez zuen inoiz ohiko abertzaleengandik gauza handirik espero.

ETA sortu zenean, ordea, kultura-arloan hizkuntzaganako interesa berpiztu eta euskarari aurretik baino kasu askoz handiagoa egin zitzaion, eta hor garbi adi zitekeen Mokoroak aspaldian ereindako haziaren oihartzuna, klandestinitatean haren liburua eskuz esku pasatua zen eta. Berak, jakina, ongi ikusten zuen aldaketa hori. Helburu politikoak lortzeko gogorkeria eta terrorismoa erabiltzeari, ordea, biguin zion.

Halere, Francoren diktaduraren aurka borrokatzen zutenen ekintzak, polizi errepresio giro hartan, onartu ez arren, ulertu behintzat egiten zituen, erdal esaera ezaguna alderantziz aipatuz: «Lokatz haietatik heldu dira oraingo hautsok». Gerra eta gerra ondoko hilketak, fusilamenduak, garaileen mendekuak, zapalkuntza, errepresio basatia eta askatasunik gabeko egoera hura bizi-bizitan eta bere haragian ongiegi ezagutuak zituen berak, orduko gaztetxo batzuen ekintza armatu apal haiengatik eskandalizatzen!

Funtsean, Justo Mari Mokoroa, ohiko euskaldun apaiza zen, tradizionala, San Tomasen filosofiaren iturrian edana, ezkor xamarra eta mistikarako nolabaiteko joeraxoa zuena. Bere buruarekin zorrotz eta estua izaten bazen ere, besteak epaitzeko, ordea, bigunago agertu ohi zen, giza ahuleri txikiak kondenatu ez baina ulertu eta nolabaiteko umorez justifikatzearen aldekoa. Aholku bila zetozkionekin, aldiz, zuhur bezain zehatza izaten zen, eta inoiz gogorra ere bai, arazoak xurikeriaz ezkutatu gabe.



J. A. Agirre lehendakariari J. M. Mokoroak eginiko poema, orogari moduan argitaratua.



EUSKARAREN BATASUNARI BURUZKO JARRERA ETA IRITZIAK

Gauza jakina denez, aita Justo Marik ez zuen inoiz euskararen batasuna onartu. Eta arazoa ez zen hura «gaizki egina» zelako, hots, euskalkien arteko oreka ondo lortu ez zelako edo hautaturiko deklinabideari edo aditz sistemari gaizki zeritzelako; ez zen halakorik. Kontua bestelakoa zen, oinarri-oinarrizkoa: haren iritziz, euskarak ez zuen batasunik behar.

Gaurko ikuspegitik pentsaezina litzateke euskarak irakaskuntzan, literaturan, administrazioan eta hedabideetan lortu duen garapena, aurretik batasunik izan ez balu. Baina Mokoroa, autonomiaren lehen hamar urteak ezagutu arren ere, adinez, izaeraz eta pentsaeraz autonomia aurreko gizona genuen. Bere bizitza ia osoan ez zuen gaztelania eta frantsesa besterik ezagutu ofizial Euskal Herrian. Berak, latinez gainera, hizkuntza horietan jaso zuen, funtsean, zeukan kultura guztia, eta horregatik nekez burura zekiokkeen euskarak inoiz horien tokia bete ahalko zuela.

Hori dela eta, bere bizitza luzean ezagutu zuen errealitateak erakutsi zionez, kultura nagusirako, zientziarako eta zeregin ofizial guztietarako, euskaldunok jada bi

hizkuntza landu eta batu horiek genituela ontzat emanda, eta horren aurka egitea alfer-lana zelakoan edo, euskarari beste leku bat utzi nahi zion; gelditzen zena, hain zuzen: bihotzekoa, senide eta lagunaren arteko txoko kuttuna, barru-barruko sentimendu ezkutua adieraztekoa, afektibitatea agertzeko, hots, giza harremanetarako hizkuntzari dagokiona. Eta maila horretarako, noski, aski zen tokian tokiko euskarari eustea, inolako batasunik egin gabe.

Belaunaldi berriek jarrera hori kritikatu zioten, Lizardiren bideari jarraikiz, euskara orotarako hizkuntza, edozer esan eta azaltzeko mintzaira izatea nahi eta behar zutelako, baserri giro apaleko garo usaina zerion euskara hura, lehenbailehen ordura arteko maila apaletik jaso eta kaleko mintzaira, hiritarra, eskolakoa, unibertsitatekoa bihurtu zedin. Mitxelenarekin berarekin ere, eztabaida ez gutxi izan zituen arazo honexegatik.

Ordudanik jende anitz aritu da egokitze-lan horretan, gure hizkuntza zeregin goragoetako egokitzen, eta ondorioak begien bistan ditugu: testu eta literatur liburu ugari, aldizkariak, egunkaria, hiztegiak, entziklopediak, zientzi irakurgaiak, ordenagailu-programak etab. Mokoroaren garaian nekez amestekoak.

Noski, orain inork ez du hori guztiori zalantzan uzten, baina, gaur egun badakusagu hori ez dela nahikoa, eta, horrez gainera, Mokoroak azpimarraturiko arloa ere berreskuratu eta landu beharra daukagula: giza harremanetarako euskara, jolas-hizkuntza, maitasun- eta sentimendu-hizkuntza. Eta hori ezin dezakete hiztegi arruntek edo zientzi liburu hotzek eman. Aita Justoren kezka zaharraren barruko arrazoi handia argi ikusten dugu orain, eta luzaro zokoraturiko edo ahantzi xamar izandako arlo hori lehenbailehen bultzatu beharra planteatzen zaigu orain. Eta hor, zer esanik ez, herriko euskarak, etxeoak, euskalkiek badute beren tokia.



AITA JUSTOREN IKASLE OHIAK

Haren ikasle izandako asko, behin eskolapioen ikastetxea utzi eta gero ere, sarritan joaten gintzaizkion bisitan. Maiz solas egitearren, beste batzuetan hizkuntz arazoetan aholku bila, gure lehen euskal zirriborroak berrikus eta zuzen zitzan, eta inoiz gizarteko edo euskararen arazoren bati buruz mintzatzeko ere bai.

Izan ere, era guztietako ikasleak izan zituen, haietako batzuk aski ezagunak. Adibidez Gregorio Monreal jauna, Euskal Herriko Unibertsitatearen lehen errektorea izandakoa, Andolin Eguzkitza idazlea, Ramon Zallo, aurrekoa bezala EHUko irakaslea, Patxo Unzueta kazetaria eta Adolfo Arejita idazle eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Labayruko beste kide ugari ahantzi gabe.

Euskaldun berriei buruz Mokoroak sentimendu kontrajarriak zerabiltzala esan liteke. Alde batetik, noski, poza ematen zion bere ikasle izandako batzuk asaben hizkuntza galdua ikasten ari zirela ikusteak. Baina, bestaldetik, oso ezkorra izanik, euskara, benetako euskara jatorra, amaren bularretik nahitaez edoski behar zela uste zuen zin-zinez. Euskaldun askok txikitako euskara erabat galdu dutela eta beste anitzek

erdaraz bikain hitz egiten zutela ohartu gabe nonbait, berak ez zuen sinesten euskaldun berriak euskara behar bezala mintzatzera inoiz hel zitezkeenik, eta maiz, oso gogor hitz egiten zuen haien kontra, eta euskaldun berri ausartegiak hizkuntz aldrebeskeriak salatzen.

Iritzi hertsiegi horrekin, beharbada, euskal alorretik izpiritu ahuleko ikasleren bat uxatuko zuen, euskara ikasten jardutea alfer-lana eta ezin lortuzko helburua zelakoan, baina beste askorengan, ordea, aita Justok erakusten zuen ezkortasun hura egiazko erronka bihurtzen zen, eta dizipulu horiek ekinaren ekinaz ezina egingarri zitekeela frogatu nahi zioten maisu zahar egoskorrari, nolabaiteko paradoxa erabiliz, arrazoirik ez zuela konturatzean poza har zezan.

Edonola ere, gramatika-
-gorabeheretan, literaturan eta fraseologi eremuan argitasunak, aholkuak eta iritzi oso interesgarriak eskaintzen zizkien beragana jotzen zuten ikasle guztiei. Egia esan, aparteko gramatkarik argitaratu ez arren ere –bazuen, ordea, euskara ikasteko metodo txiki bat, polikopiatua, berberak prestatua, Txileko euskaldun erbesteratuei klaseak emateko erabilia– ahozko klaseen bitartez nolabaiteko eskola utzi zuen Bizkaiko ikasleen artean.



Txilen, Santiagoko kaleetatik bizikletan.

AZKEN URTEA

Esan liteke Mokoroa bere izpirituaren haur kutunaren jaiotza ikusteko irrikak ia 90 urteak arte mantendu zuela bizirik. *Ortik eta emendik* argitaratzeko, buru-belarri jardun behar izan zuen lanean, eta horrek, izugarri gutxitu zizkion zahartzaroko azken indarrak, argia ematean bere burua erretzen duen kandela piztuaren antzera. Bere liburuaren haurdunaldi neketsuaren zorioneko erditze pozgarriarekin, ordea, lasai gelditu zen, behin baino gehiagotan zeharo etsirik egona baitzen, bere bizitzako obra nagusia argitaraturik inoiz ez zuela ikusiko beldurrez. Ez zuen, ordea, lanean segitzeko gogoia galdu. «Orain –zioen– azkenean denbora izango dut betidanik

egin nahi izan dudan gauza bat egiteko: San Tomasen *Summa Theologica*, jatorrizko hizkuntzan, latinez, patxadaz irakurtzeko».

Baina, zoritxarrez, ez zuen horretarako betarik izan, erditze-ahaleginak ahuldurik nonbait. Bizitza luze bezain emankorra izan ondoren, 1990eko azaroaren 7an, Bilbon hil zen, Deustuko San Sebastian doktorearen klinikan, bere 89 urteekin burua oraindik asmo eta xedez beterik zeukanean. Azken agurreko mezan Juan Mari Uriarte apezpikuak Orixeren *Euskaldunak* poemako bertso batzuekin agur egin zion.



Aita Justo 1990. urtean, *Ortik eta emendik* aurkeztu zuen egunean. Eskuinean bere anaia Agustin jesuita du eta ezkerrean bere arreba Isidora.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Labayru Ikastegia.*
- *Bidegileak bilduma.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1616-6 (Obra osoa)
84-457-1617-4

L.G.: BI-3150-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística